



RAVELEN ARGITASUNAK XOSTAKOVITXEN ILUNTASUNARI EMANGO DIO BIDE LARUNBATEKO MATINÉEAN

Chiaroscuro Laukoteak *Argitik ilunera* izeneko kontzertuan Maurice Ravelen eta Dmitri Xostakovitxen hari-laukote bana eskainiko du.

Miramongo Matinéeak **larunbat honetan, martxoak 24, 11:00etan**, itzuliko dira **Chiaroscuro** Laukotearen *Argitik ilunera* kontzertuarekin. Euskadiko Orkestra Sinfonikoko kide diren Natacha Dupuy-Scordamaglia (biola), Irene Echeveste (biolina), Juan Ignacio Emme (biolontxelo) eta Antoni Kosc-ek (biolina) bi obra eskainiko dituzte matinéen denboraldiko hamabigarren hitzordu honetan: Maurice Ravelen *Hari-laukotea* eta Dmitri Xostakovitxen *8. Hari-laukotea*.

Argitik ilunera kontrastez eta proposamen kontrajarritz osatutako kontzertua izango da. Batetik, Ravelek bere laukotean musika freskoa eskaintzen digu, kezkarik gabeta, kolorez, sotiltasunez eta argiz bete. Bestetik, Xostakovitxek iluntasuna, min sakona, beldurra, izua eta intimitatea dakarzkigu.

Maurice Ravelek *Hari-laukotea* obra 1902/03an idatzi zuen eta bere irakasle Gabriel Fauréri eskaini zion. Arteen 28 urte zituen eta bere ibilbide bikainaren hasieran baino ez zegoen. Obra honek kritika kontrajarriak jaso zituen; Fauré berak gogor kritikatu zuen, alderdi ahulenak azpimarratuz. Claude Debussyk, aldiz, argiz betetako musika hark liluratuta, zera esan zion gutun bidez Raveli: «Musikaren eta nire izenean, ezta okurritu ere zure laukotearen nota bakar bat aldatzea».

Dmitri Xostakovitxek *8. Hari-laukotea* obra 1960an idatzi zuen, 54 urte zituela, eta faxismoaren eta gerraren biktimei eskaini zion. Aurrerago bere alaba Galinari aitortu zionez, egiaz bere obrari eta bizitzari omenaldi bat egin nahi izan zion, epitafio modura. Bi mundu-gerrak sufritu eta Stalinen diktaduran biziraun ostean, sistematik kanpo egindako borroka alde batera utzi eta alderdi komunistarekin bat egin zuen, ordurako akituta baitzegoen xantairi aurre egiteaz. Aldarte ilun honi musikaren bidez eman zion erantzuna da zortzigarren laukote hau. Bere obra pertsonalenetako bat bezala ezagutzen da, eta bertan bere lanetako askoren aipu eta motiboak agertzen dira.

Sarrera solteak (7€) salgai daude sarrerak.euskadikoorkestra.eus webgunean eta Kursaal Auditoriumeko leihatilan. Gainera, leku liberrik geratuko balitz, Orkestraren egoitzako leihatilan bertan eros ahal izango lirateke kontzertuaren egunean.

Miramongo Matinéeetara eroso joateko, Euskadiko Orkestrak **doako autobus-zerbitzua** eskainiko dio bertaratu nahi duen orori. 10:25ean abiatzen da autobusa Gipuzkoa Plaza 4tik eta geldialdiak egiten ditu Antso Jakituna 18an eta Madril Hiribidea 34an.

Miramongo Matinéeek **Kutxa Fundazioaren babesa** dute sortu zirenetik.

IKUS-ENTZUNEZKO KONTZERTUA EUREKA! ZIENTZIA MUSEOAN

Goizean matinéean parte hartu ostean, Chiaroscuro Laukoteak arratsaldean, bi txandatan (18:00 eta 19:00), ikus-entzunezko kontzertua eskainiko du Eureka! Zientzia Museoan. Kontzertu honetan, Chiaroscurok Maurice Ravelen *Hari-laukotea* obra eskainiko du eta, aldi berean, *Astronomy Photographer of the Year* lehiaketa entzutetsuaren 2016ko edizioko argazki irabazleak proiektatuko dira. Guztia batera ikuskizun sensorial atsegina izango da. **Sarrerak (2€)** salgai daude dagoeneko eureka museoa.es webgunean eta museoko leihatilan.